

2019 URTEKO SANTA EUFEMIA AZOKAKO TALOEN TXOSNAK JARTZEKO BAIMENAK ENKANTE BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK.

1. ENKATEAREN XEDEA.-

Enkantearen gaia hau da: Toki Entitateetako Ondasun Erregelamendua onartzen dauan ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan ezarritako preskripzioak betetuz gero, 2019ko Santa Eufemia azokako taloen txosnak (2) jartzeko baimenaren esleipena, ENKANTE PUBLIKO bidez egingo dana.

2. LIZITAZIO PREZIOA.-

Herri erabilerako lurretan postua ipintzeagaitik ordaindu beharreko tasea arautzen dauen ordenantza fiskalaren arabera, herriko jaietan, m²-ko edo zatiko eta eguneko eta 53 m² izaten dirala kontuan izanda, tasa 476,47 €-koa izango litzatekela kontuan eukita, lizitazio prezioa: 476,47 €-koa izango da, Lameran.

Hori holan, ENKANTE PUBLIKOA, prezio horretatik hasita gorantz egingo da, eta eskaintzarik abantailatsuenari eta Bermeoko Udalarentzat etekinik handiena suposatuko dauanari adjudikatuko jako lehenengo txosna, esleipendunak, kokapen bien artean aukeratuko dauana. Bigarren eskaintza hoberenari, Lamerako bigarren kokapena esleituko jako.

Eskatzaile batek baimen bakarra lortu ahal dau. Hori holan, nekazal ustiapen bakotzeko eskari bakarra aurkeztu ahal izango da. Eskari bat baino gehiago agertzen badira, nekazal ustiapen bardinagaz kanporatuak izango dira.

3. KONTRATAZINO MAHAIA.-

Kontratazino mahaia kide honeekaz osatuko da:

Lehendakaria: Idoia Platas Arenaza and., Ekonomiako zinegotzi delegatua (bere orde, Aritz Abaroa Cantauriense jn.)

Kideak: Jurdana Uriarte Lejarraga and., Udaleko idazkari orokorra (bere orde, Karmele Muñoa Arrigain and.), Edurne Urrutia Uriarte and., Udal kontu hartzailea (bere orde, Idurre Basterretxea Altonaga and.), Karmele Muñoa Arrigain and., Administrazio Orokorreko teknikaria (bere orde, Ainara Etxebarria Agorria and.), eta Susana Regidor Lardies and. kontratuaren sail arduraduneko teknikaria (bere orde, Iñaki Lopez Elordui, Gazteria teknikaria).



Kultura eta Hezkuntza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9157 Faxa: 94 688 15 18
kultura@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 29/07/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/07/2019
14:44:43

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DEK0746
Data: 26/07/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E3000295ED00D7K8E5W1C1P9

Idazkaria: Mirelur Jorge Astiazaran and. kontratuaren sail arduraduneko administrari laguntzaile (bere ordeaz, Iratxe Barrenetxea Aierbe and.).

4. PROZEDURA.-

Baldintza pleguak eta gainerako dokumentazioa Berh@z bulegoan aztertu eta eskuratuko dira, ordutegi honetan: goizez 8:30etik 14:30era arte, astelehenetik barikura, eta 10:00etatik 13:00etara arte, zapatuetan. Deialdia egiten dan egunetik abuztuaren 21era arteko epea egongo da dokumentazioa aztertu eta eskuratzeko.

Proposamenak Udalaren Erregistro Orokorrean (Berh@z bulegoan) aurkeztuko dira abuztuaren 21era arte, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren iragarkia publikatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, Kultura eta Hezkuntza Sailak A gutunazalak zabalduko dauz eta, inolako akats materialik aurkituko baleu, hiru (3) laneguneko epea, ez gehiago, emongo dau, lizitatzailak akatsak zuzendu daizan.

Kontratazio mahaiak, aurretik, izaera juridikoa daukien dokumentuen balio formala aztertu eta kalifikatuko dauz, baimenak adjudikatu baino lehen.

Baimenen adjudikazioa 2019ko irailaren 6a baino lehenago egin beharko da.

B gutunazalak jendaurrean zabalduko dira, Gizarte eta Kultura Etxeko hitzaldi aretoan, 2019ko abuztuaren 28an, 11:00etan.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintza ekonomikoen dokumentazioa zabalduko dau, esleipen organora jaso, ekonomikoki abantailatsuena dan prezioa eskaintzen dauan lehen eta bigarrena eskatzaileen aldeko adjudikazio proposamena. Txosnaren kokapena lehenengoa geratu danak aukeratuko dau. Honek ez dau sortzen inolako eskubiderik proposatutakoen alde Administrazioaren aurrean, esleipen organoaren akordioaz adjudikatzen ez dan bitartean.

Esleipena egin baino lehen, proposatutakoei errekerimendua egingo jake, ondorengo dokumentazioa aurkezteko:

- NAN edo IFK-ren kopia
- Eskatzaileak, pertsona juridikoa bada, Sozietatearen Konstituzio Eskrituraren kopia, eta Administrazioagaz kontratatuzeko, proposamena sinatzen dauanaren alde emondako ahalmen nahikodun ahalordea edo testigantza notariala, merkatal Erregistroan inskribaturikoak bata zein bestea.
- Nekazaritza ustiategiaren txartela
- Produktuaren osasun erregistroa, halan bajagoko



Kultura eta Hezkuntza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9157 Faxa: 94 688 15 18
kultura@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 29/07/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/07/2019
14:44:43

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DEK0746
Data: 26/07/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E3000295ED00D7K8E5W1C1P9

- Litzitazio egunerako betebeharrak fiskaletan egunean egotearen ziurtagiria
- Gizarte Segurantzaren egunean egotearen ziurtagiria
- Osasun erregistroak egunean eukitzea
- Erantzunkizunaren zibilaren aseguruaren kopia
- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan altan emonda egotea eta egunean egotea
- Salduko diran produktuak identifikatzea eta euren jatorria bermatzea.
- Janariak manipulatzeko beharrezko formakuntzaren egiaztagiria edo beharrezkoa ez badan adierazpena
- Instalakuntzaren deskribapena eta azalera, Bermeoko Udaleko Kalez kaleko salmenta arautzen duan Ordenantzaren arabera.

Aipatutako dokumentuak ez aurkezteak, edota, aurreko atalean aurreikusitakoa zehatz ez betetzeak, esleipenari uko egiten jakola ulertuko da, Herri Administrazio-Administrazio-Jardunbide Arruntaren Legeko 68. artikuluan xedaturikoan izan ezik.

Kasu honetan, enkanteko emaitzen arabera zehaztutako hurrenkera jarraituta, hurrengo hautagaiari errekerimendua bialduko jago gorago adierazotako dokumentuak aurkeztu daizan.

Behin errekerimendua epez eta modu egokian bete dala egiaztatuta, proposamena esleipena egiteko eskumena daukan organora bideratuko da, esleipen erabagia hartu daian.

Esleipen organoaren akordioa proposamenari egokituko jago Kontratazio Legerian aurrikusitako kasuetan izan ezik.

5. ADJUDIKAZINO FORMA.-

Baimena hau ENKANTE PUBLIKO bidez esleituko da eta, bardinketarik egongo balitz, eskariak aurkezteko daten arabera erabagiko da, hau da, bardinketa kasuan, eskaria arinago erregistratu dauanaren alde egongo da esleipena.

6. DOKUMENTAZINOA ETA ONARPENA.-

Eskaintzaileak, gutunazal itxi bi aurkeztuko dauz zeinetan ondorengo agertuko dan: **“Bermeoko 2019 urteko Santa Eufemia azokako taloen txosna jartzeko proposamena”** lema; lizitatzailaren edo horren ordezkoren izena be agertuko da.

“A” GUTUNAZALA:

“A” gutunazalan ondorengo dokumentuak sartu beharko dira:



Kultura eta Hezkuntza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9157 Faxa: 94 688 15 18
kultura@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 29/07/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/07/2019
14:44:43

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DEK0746
Data: 26/07/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E3000295ED00D7K8E5W1C1P9



- Eransten dan ZINPEKO AITORPENA sinatuta. (I. eranskina)
- Behin behineko bermea ipini izanaren egiaztagiria

“B” GUTUNAZALA:

- ESKAINTZA EKONOMIKOA, plegu honen azkenean erantsitako proposamen ereduaren arabera (II. eranskina), zeinetan taloen txosna ipinteagaitik eskaintzen dan diru kopuru konkretua eta zehaztua ezarriko dan.

Esleipendunak, txosna ipini orduko jakinarazi beharko dauz sortu daitekezan ezgaitasun eta bateraezintasunak.

7. BERMEAK.-

Lehiatzaileek 100 €-ko behin-behineko bermea jarri behar dabe lehiaketa honetan parte hartzeko. Esleipen proposamena egin eta gero, diru kopuru hori itzuli egingo da. Halan be, behin-behineko bermea atxiki egingo da, proposamenean agertzen diran parte hartzaileei adjudikatzeko erabakia hartu arte, baita, eta esleipena egin orduko euren proposamena beste arrazoi barik erretiratzen daben parte hartzaileei kendutakoa be, atxiki egingo dira.

8. ENKANTEAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK.-

1. Udalak taloen txosna bi esleituko dauz 2019 urteko Santa Eufemia azokan, 2019ko irailaren 16an, goizeko 08:00etatik gaueko 23:30ak arte. Kokapena bi izango dira, Lameran, Udalak adierazitako lekuetan.
2. Txosnaren azpiegitura, irailaren 15ean jartzeko aukera dago, Udalgaz adostuta.
3. Talo baktxaren gehieneko prezioa 5 €-koa izango da.
4. Taloa, arto urunez egindakoa izango da, osorik eta irailaren 16an egin beharko da.
5. Esleipendunek Santa Eufemia azokaz gain, Udal azokan antolatzen diran beste hiru azokatan be, parte hartu beharko dabe: 2019ko gabonetako azokan eta 2020ko udabarri eta udako azoka berezietan, Udalak horretarako deitzen badeutsee.
6. Taloen txosnatan ipiniko diran elementu idatzi guztiak (prezioak, prezio



Kultura eta Hezkuntza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9157 Faxe: 94 688 15 18
kultura@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 29/07/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/07/2019
14:44:43

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DEK0746
Data: 26/07/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E3000295ED00D7K8E5W1C1P9

zerrendak, oharrak, kartelak, zein beste edozein idatzizko elementu) euskeraz idatzita egongo dira. Euskerea eta gaztelania biak erabiltekotan, euskereari lehentasun osoa emongo jako.

7. Txosnatan egongo diran pertsonak elebidunak izatea gomendatzen da, eta agurrak eta lehenengo berbea euskeraz egingo dira.
8. Udalaren Itzulpen Zerbitzuaren laguntza teknikoagaz baliatu ahal izango dira esleipendunak maila idatzirako ezarritako hizkuntza eriskideak beteteko.

9. ORDAINKETA FORMA.-

Adjudikazioaren prezioa Bermeoko Udalari ordainduko jako 2019ko irailaren 13rako. Ordainketa transferentzia bidez edo Banketxek edo Aurrezki Kutxak konformaturiko taloiaren bidez. Holan egingo ez balitz, baimenari uko egiten deusola ulertuko da eta baimen hori hurrengoari esleitzeko proposamena egingo da.

Esleipendunak, behin dirua ordainduta, txosna ez jartzea erabakitzen badau, galdu egingo dau diru hori.

10. BERMEAREN ITZULKETEA.-

Fidantza adjudikazioa egin ondoren itzuliko jake lizitatzailerei, esleipendunari izan ezik, honeri jagokon abonua egin dauanaren froga aurkezten dauan momentuan itzuliko jako.

11. JURISDIKZIO ESKUDUNA.-

Baimenaren interpretazinoari buruz sortutako arazo eztabaidatsuak, esleipen organoak erabagiko dauz, eta horren akordioek, administrazio bideari amaiera emongo deusie eta horreen aurka errekurtsio kontentzioso- administratiboa jarrai ahal izango da, aipatutako Jurisdikzioko Lege erregulatzailan xedatutakoaren arabera, aldeei jagoken beste edozein foruren errenuntzia espresuagaz, aurretik esandakoaren kalte barik, Lege aurrean ikusten dan beste edozein errekurtsio egin daitekeelarik.

Bermeon, 2019ko uztailaren 27an



Kultura eta Hezkuntza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9157 Faxe: 94 688 15 18
kultura@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 29/07/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/07/2019
14:44:43

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DEK0746
Data: 26/07/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E3000295ED00D7K8E5W1C1P9



I. ERANSKINA

Zinpeko Aitorpena

..... jaunak/andreak,
..... helbidea duenak etaNAN zenbakia duenak, bere
izenean edo (ordezkaritzako ahalmenak
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,
enpresaren, egoitza soziala eta IFK
zenbakia dituenaren izenean,

Nire erantzukizunpean ADIERAZTEN DU:

1.Santa Eufemia azokan, enkantearen bidez taloen txosnak ipinteko arautzen dauzan Baldintzak ezagutu, onartu eta betetzen dodazela.

2.Administrazioagaz kontratatzeke legez ezarri diran baldintzak betetzen dodazela, leialtasunez, Sektore Publiko Kontratuen 9/2017 Legeak galdatzen dauenaren arabera, eta bertan zehazten diran zehaztapenekin eta baldintzekin.

3.Ez nagoela (eta/edo ordezkatzeko dodan enpresa, administratzaileak edo ordezkariak ez dagozala) kontratatzeke ezelako debeku- eta bateraezintasun-egoeratan; hau da, Sektore Publiko Kontratuen 9/2017 Legeak 71. artikuluan xedatu dauzanetan, bertan zehazten diran zehaztapen eta baldintzekaz.

4.Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean nagoela (eta/edo ordezkatzeko dodan enpresa), indarreko xedapenek ezartzen dauzanetan; eta, orobat, ez dodala (eta/edo ordezkatzeko dodan enpresak) zerga-zorrik ordainarazpen-aldian Bermeoko Udalagaz. Hartara, administrazio-kontratzaileari baimena ematen deusat, esleipendun proposatuz gero, informazio hori eskura daien, hitzarmenik sinatu dauen beste herri-administrazio batzuen datu-baseen bidez.

5.Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, saldu gura dodan gaiari jagokoa epigrafean hain zuzen ere, altan nagoela.

6.Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor edo administrazio-arloko zigorra jaso ez dodala.

7.Bermeoko Udalarai baimena ematen deusat deialdi honi lotutako eskakizun, barri emote eta jakinarazpen mota guztiak posta elektronikoa bidez bidaltzeko behean ageri dan helbidera, legeak ezarritako ondorio juridikoekaz.

Helbide elektronikoa:

8.Era berean, konpromisoa hartzen dot kontratazio-mahaiaren aurrean egiaztatzeke, txosna esleitu baino lehen edo Udalak eskatzen deustan bestelako momentuan, legez eta baldintzetan zehazten diran agiriak badaukadazela, eta baliozkoak dirala.


9.Jakitun nagoela aitorten honetan edo aitortenagaz batera aurkezten diran datuetan edo dokumentuetan zehaztasun falta badago, edo faltsutasunik egonez gero, edo zer edo zer aipatu gabe itxi bada, erantzukizun penal, zibil edo administratiboak egon leikezala eta euri aurre egin beharko deusdezazela halakorik sumatuz gero.

Eta jagokozan ondorioetarako idatzita jasota gera daiten, adierazpen arduratsu hau sinatzen dot,n, 2019ko.....(r)en....(e)an.

sinadura".



Kultura eta Hezkuntza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9157 Faxa: 94 688 15 18
kultura@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

 <p>STEMMA PRODER IN PRIMIS BERMEO</p>	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatuta ahal dozu. Kodea: 07E3000295ED00D7K8E5W1C1P9	Sinadurea eta data SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 29/07/2019 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/07/2019 14:44:43	EXPEDIENTE :: 2019IDA_DEK0746 Data: 26/07/2019 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

II. ERANSKINA

.....
jaunak/andreak, helbidea duenak eta NAN
zenbakia duenak, bere izenean edo
..... (ordezkaritzako ahalmenak
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,
..... enpresaren, egoitza soziala
..... eta IFK zenbakia
..... dituenaren izenean, telefono zenbakia
dauanak, zera

ADIERAZTEN DOT:

- 1.- Santa Eufemia azokako taloen txosnak jartzeko baimenak enkante bidez esleitzeko administrazio-baldintza zehazten orriak ezagutzen dodazela
- 2.- 2019ko irailaren 16an, Santa Eufemia azokako taloen txosna bat jarri nahi dodala Lameran
- 3.- Aipatutako baimena eskuratzeko honako kopurua ordaintzeko eskaintza egiten dodala (jarri prezioa zenbaki eta hizkiez).

Taloen txosna postua jartzeagaitik €
(letratan:euro)

.....(a)n, 2019ko(a)ren(e)an

IZENPEA



Kultura eta Hezkuntza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9157 Faxe: 94 688 15 18
kultura@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 29/07/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/07/2019
14:44:43

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DEK0746
Data: 26/07/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E3000295ED00D7K8E5W1C1P9

